



BANDOA / BANDO



Bando honen bidez, Hondarribiko herritar guztiei jakinarazten diet [Lehendakariaren abenduaren 22ko 47/2020 Dekretua](#) argitaratu dela gaur, 2020ko abenduaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Dekretu horren bidez aldatzen da 44/2020 dekretua, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikokoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

Arau berria bihar, 2020ko abenduaren 24an, jarriko da indarrean, 00:00etan, eta guztiek bete beharko dugu nahitaez; gure bizitzak garatzeko neurriak jasotzen ditu, salbuespenik gabe, eta, horren barruan, Eguberri eta Urteberri egunei dagokien urte-sasoia ospatzea sartzen da.

Aldaketok zenbait muga berri dakarte egoera epidemiologikora etengabe egokitzen dela bermatze aldera eta osasun-babesaren eta gizarte gisa dugun aurrerapenaren arteko oreka lortu nahi dute. Aurreko bandoan nioen moduan, ez dira erakunde guztiek, batez ere osasun-erakundeek, iragarri nahi genituzkeenak, baina horiek dira osasun publikoa babesteko helburua, herritarrek beren bizitza pertsonalean eta sozialean askatasunez mugitzeko eta biltzeko duten eskubidea eta lanbide- eta lan-jardueren garapen osoa bateratze zailaren, ia ezinezkoaren, isla.

Ondorioz, oso serio hartu behar ditugu bete beharreko neurriok. Behar-beharrezkoa da gure jokabide arduratsu eta solidarioa Eguberrietako eta Urteberriko ospakizunez erabat gozatzeko guztiok dugun nahiaren aurretik jartzea. Gogora dezagun, hain zuzen ere, egun hauetan funtsezkoa den guztia, hau da, senideen eta lagun bilerak, kaleetan, establezimenduetan eta lokaletan jendea biltzea eta maitasun- eta adeitasun-

Por medio del presente Bando pongo en conocimiento de toda la ciudadanía de Hondarribia que en el Boletín Oficial del País Vasco de hoy, día 23 de diciembre de 2.020, se ha publicado el [Decreto 47/2020 del 22 de diciembre del Lehendakari](#). Mediante dicho decreto se cambia el decreto 44/2020, de refundición en un único texto y actualización de medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2.

Esta nueva norma, que entrará en vigor mañana 24 de diciembre de 2020 a las 00.00 horas, será de obligado cumplimiento para todos y todas, con medidas para el desarrollo de nuestras vidas sin excepción, e incluye la celebración de la temporada correspondiente a los días de Navidad y Año Nuevo.

Estos cambios suponen nuevas limitaciones para garantizar una adaptación permanente a la situación epidemiológica y buscan un equilibrio entre la protección de la salud y nuestro progreso como sociedad. Como decía en el bando anterior, no son las que quisiéramos anunciar todas las instituciones, sobre todo las sanitarias, pero buscan el objetivo de proteger la salud pública, el derecho de los ciudadanos a moverse y reunirse libremente en su vida personal y social y el pleno desarrollo de las actividades profesionales y laborales el reflejo de la difícil, casi imposible, conciliación.

En consecuencia, debemos tomarnos muy en serio estas medidas a cumplir. Es absolutamente necesario anteponer nuestra conducta responsable y solidaria al deseo que todos tenemos de disfrutar plenamente de las celebraciones de Navidad y Año Nuevo. Recordemos, precisamente, que todo lo fundamental en estos días, es decir, las



HONDARRIBIKO UDALA

adierazpenak, gaixotasuna transmititzeko biderik nabarmenena dela. Gogoan izan dezagun gure gain hartzen ditugun sakrifizio profesional eta pertsonalek, eta, aldi berean, gainerako herritarren sakrifizioekin batera egiten ditugunek, emaitza kolektiboa eragingo dutela, osasun publikorako, gure bizitza pertsonalerako eta udalerriko jarduera ekonomiko, sozial eta kulturalerako onura nabarmena ekarriko duena.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet, lehenbizi, pertsona gehienei orain arte izandako gizalegezko jokabideagatik eta horretan irauteko ere gogorarazi nahi diet. Eta bigarrenik, gaur egun oraindik ere modu arduragabea ari direnei beren jarrera zuzentzeko eskatu nahi diet berriz ere.

Gabon, Eguberri eta Urte berri on guztiei!

Hondarribian, 2020ko abenduaren 23an



HONDARRIBIKO UDALA

reuniones de familiares y amistades, la concentración de gente en calles, establecimientos y locales y las muestras de cariño y cordialidad, es la vía más rápida para transmitir la enfermedad. Recordemos que los sacrificios profesionales y personales que asumimos, y que a su vez acompañamos a los del resto de la ciudadanía, producirán un resultado colectivo que redundará en un evidente beneficio para la salud pública, para nuestra vida personal y para la actividad económica, social y cultural del municipio.

Para terminar, quiero dar las gracias, en primer lugar, a la mayoría de las personas por su comportamiento cívico y recordarles que continúen así. Y en segundo lugar, quiero volver a pedir a quienes a día de hoy siguen actuando de forma irresponsable, que rectifiquen su postura.

Feliz Navidad y Feliz Año a todos y todas.

En Hondarribia, a 23 de diciembre de 2020

ALKATEA

Txomin Sagarzazu Ancisar



HONDARRIBIKO UDALA



HONDARRIBIKO UDALA